

Kutxabankek eta CECOBik Bizkaiko merkataritzaren lehiakortasunaren alde egiteko duten konpromisoa berriztu dute

- **Lankidetzaren hitzarmenak irtenbide finantzarioak antolatzen ditu, bai higiezinak erosteko, bai negozioak hornitzeko, baita diruzaintzako beharrezan erantzuna ematera bideratutako kreditu-kontuak ere**
- **Alderdi biek positibo iritzi diote, sektorearen salmenten hazkundeari eustea helburu izan duen eta duen lankidetzaren ibilbide emankorrari**

2018ko azaroak 21. Pedro Campo Bizkaiko Merkataritzako Enpresari Konfederazioaren presidentea eta **Xabier Solaetxe** Kutxabanken Xehkakako Sarearen Bizkaiko presidentea sinatu dute lankidetzaren hitzarmena. Hitzarmen horrek CECOBIn osatzen duten zona eta gremio elkarten beharrezan bereziki erantzuteko eratu diren finantza-lerroak eskuratzeko baldintzak eguneratu ditu.

Salmenta-mailaren hobekuntza eta euskal merkataritzaren, oro har, eta, bereziki, Bizkaiko sektorearen BPGen hobekuntza nabaritzen ari den testuinguru honetan, alderdi sinatzaile biek erakutsi dute hazkunde horri eusteko euren borondatea, finantza produktu eta zerbitzu batzuk lehentasunezko baldintzatan eratuz, eguneroko eragiketarako optimizatze helburuz eta, ondorioz, euren egoera lehiakor hobetzeko helburuz. Zentzu horretan, CECOBIn eta Kutxabankek duten lankidetzaren ibilbideari positiboa eta emankorra dela iritzi diote sinatzaileek.

Pedro Campok “**era honetako hitzarmenaren garrantzia azpimarratu du, beren negozioetarako interesgarriak diren abantaila eta baldintzak eskaintzen baitizkie gure bazkideei**”.

Xabier Solaetxek esan duenez “**finantza erakundeak dendari-elkartekin dituen hitzarmen estrategikoek arlo lehiakor eta profesionalizatua sortzen lagungarri izan nahi dute, enplegua eta baliabideak sustatzen baitituzte**”.

Hitzarmen berriak urtebete luze indarraldia izango du eta hitzarmenean jasota dagoen finantza-produktu sorta zabala zehaztu du, inbertsiorako nahiz zirkulatzaileerako, eta mailegu bereziak izango dira negozioak ezartzeko erabiliko diren higiezinak erosteko, baita behar duten horniketarako ere, altzariak, makineria, garraiorako tresnak eta abar. Akordioak Kreditu Kontua ere eskaintzen du, Bizkaiko merkataritzaren diruzaintza beharrezan erantzuna ematera bideratua.

CECOBI elkarteko negozioek euren eguneroko kudeaketa errazteko berriaz diseinatutako produktuak ere izango ditu akordioak, esaterako, Kutxabank Negozio Kontua. Kontu horrek abantaila eskusiboak eskaintzen ditu, erakundearekin dagoen lotura-mailaren arabera; Visa Dual eta Visa Classic txartelak; edo bere TPV modernoak, salerosketa eragiketak burutzeko arintasuna eta segurtasuna hobetzen dutenak.

Lankidetzaren markoak zenbait laguntza-lerro ezartzen ditu CECOBIn hainbat jarduerara garatzeko, bere saltoki bazkideei bideratuak, Kutxabankekin elkarlanean. Horien artean, dibulgazio jardunaldiak daude, finantza, lege eta merkataritza arloetan eskura dituzten abantailak ezagutzera emateko Bizkaiko saltokiei, baita bezeroak fidelizatzeko kanpainak ere, txartelen bidezko ordainketek ematen dituzten abantailen bitartez.